

KANPO-MERKATARITZAREN ESTATISTIKAK (KAMEE), 2006KO 3. HIRUHILEKOA

Euskal AEko esportazioak %16,7 igo ziren 2006ko hirugarren hiruhilekoan

Inportazioek %17,6ko hazkunde nominala izan zuten urte arteko aldi berean

Euskal AEko **esportazioak** %16,7 hazi ziren 2006ko hirugarren hiruhilekoan, EUSTATEk landutako datuen arabera. 2005eko hirugarren hiruhilekoan 3.321,4 milioi euro lortu ziren, eta aurtengo hiruhilekoan, aldiz, 3.876,9 milioi euro. 2006ko lehenengo bederatzi hilabeteetako esportazioekin 12.140,2 milioi euro lortu dira, eta %16,8ko urte arteko hazkunde-tasa egon da aurreko urteko aldi beraren aldean. Urteko hiruhileko honetan, bere horretan mantendu da lehen seihilekoan lortutako bilakaera-tasa (%16,9).

Hirugarren hiruhilekoko guztizko **inportazioetan**, %17,6ko urte arteko hazkundea egon da, eta zenbatekoa 4.213,9 milioi eurora iritsi da. Aurreko urtean, aldiz, zenbateko hori 3.584,4 milioi eurokoa izan zen. Urteko lehen hiru hiruhilekoetako guztizko inportazioak 12.627,4 milioi eurotara iritsi dira, eta %18,0ko urte arteko hazkundea egon da, aurtengo lehen seihilekoko bilakaera-tasarekin (%18,2) bat etorritz.

Euskal AEko kanpo-merkataritzaren bilakaera. 2005-2006ko hirugarren hiruhilekoa. Milaka euro.

	ESPORTAZIOAK			INPORTAZIOAK		
	Uztaila-Iraila		Δ %	Uztaila-Iraila		Δ %
	2005	2006		2005	2006	
EUSKAL AE						
GUZTIRA	3.321.442	3.876.948	16,7	3.584.426	4.213.978	17,6
PRODUKTU MINERALAK ETA ENERGETIKOAK	204.719	385.358	88,2	1.247.970	1.570.355	25,8
PRODUKTU EZ-ENERGETIKOAK	3.116.723	3.491.589	12,0	2.336.456	2.643.623	13,1
ARABA						
GUZTIRA	922.523	1.049.665	13,8	610.798	620.846	1,6
PRODUKTU MINERALAK ETA ENERGETIKOAK	1.176	1.754	49,2	11.104	10.284	-7,4
PRODUKTU EZ-ENERGETIKOAK	921.347	1.047.910	13,7	599.694	610.562	1,8
BIZKAIA						
GUZTIRA	1.239.786	1.564.717	26,2	2.231.254	2.729.219	22,3
PRODUKTU MINERALAK ETA ENERGETIKOAK	198.613	377.339	90,0	1.226.549	1.548.282	26,2
PRODUKTU EZ-ENERGETIKOAK	1.041.173	1.187.378	14,0	1.004.706	1.180.937	17,5
GIPUZKOA						
GUZTIRA	1.159.133	1.262.566	8,9	742.374	863.914	16,4
PRODUKTU MINERALAK ETA ENERGETIKOAK	4.930	6.265	27,1	10.317	11.790	14,3
PRODUKTU EZ-ENERGETIKOAK	1.154.203	1.256.301	8,8	732.057	852.124	16,4

Iturria: Eustat

Esportazioen eta inportazioen bilakaeraren emaitza gisa, hirugarren hiruhilekoko **merkataritza-defizita** 337,0 milioikoa izan da. Beraz, 2005eko hirugarren hiruhilekoko defizita 74 milioitan areagotu da. Horren ondorioz, esportazioek inportazioen gainean

duten **estaldura-tasa** jaitsi egin da eta iazko %92,7tik aurtengo %92,0ra pasa da. Urteko lehen bederatzi hilabeteetako merkataritza-defizita 487,2 milioi eurokoa da.

Hala ere, 2006ko hirugarren hiruhilekoan, **esportazio ez-energetikoak** inportazio ez-energetikoen gainetik egon dira 848 milioitan. Estaldura-tasa %132 izan da eta produktu ez-energetikoen merkataritza-superabita 3.023,9 milioitara iritsi da, 2006ko lehen hiru hiruhilekoetan.

2006ko hirugarren hiruhileko honetan, **Europar Batasuna** helburu duten esportazioak %15,3 hazi dira, 2005eko hirugarren hiruhilekoaren aldean. Urte arteko hazkundeagatik eta bolumenagatik, Alemaniara (%24,9), Italiara (%24,6) eta Belgikara (%39,2) egindako esportazioak nabarmendu dira. Bolumenagatik lehen bezeroa den Frantziara bideratutako esportazioak, %5,8 hazi dira hirugarren hiruhilekoan.

Europar Batasunetik datozen inportazioak %14,5 hazi dira. Produktu energetikoen hornitzaile diren herrialdeetatik datozenak, aldiz, %25,8 igo dira.

Esportazioetan balio handiena duen **muga-zergetako taldea** *ekipo-ondasunak* dira (hiruhileko honetan %13,1eko igoera izan du), eta horren atzetik *metalak eta manufakturak* taldea dago, %15,2ko hazkunde-tasarekin. Aitzitik, inportazio ez-energetikoen artean, muga-zergetako talderik garrantzitsuena da *metalak eta manufakturak*. Izan ere, hirugarren hiruhilekoan %45,8ko urte arteko hazkundea izan du. Muga-zergetako bigarren taldea, bolumenari dagokionez, *ekipo-ondasunak* da (%3,7ko atzerakada izan du). Nolanahi ere, *produktu mineralak eta energetikoak* hiruhilekoko inportazio guztien %37,2 dira eta %25,8ko urte arteko hazkundea dute.


Esportazio-hazkunde handiena **Bizkaian** gertatu da. Hirugarren hiruhilekoan %26,2 hazi da eta aurtengo orain arteko bederatzi hilabeteetan %29,3. Bizkaiko inportazioak %22,3 hazi dira hirugarren hiruhilekoan, bai *produktu energetikoak* taldearen hazkundeagatik (%26,2), bai eta *metalak eta manufakturak* taldearen igoeragatik ere (%47,8).

Gipuzkoan zenbatutako esportazioen balioa %8,9 igo da uztaila eta iraila bitarte. Horretarako, lagungarriak izan dira *ekipo-ondasunak* eta *metalak eta manufakturak* taldeen bilakaera ona, %8,5ekoa eta %11,6koa hurrenez hurren. Gipuzkoa helburu duten inportazioak %16,4 hazi dira, ia esportazioen bikoitza. Inportazio horiek batez ere *metalak eta manufakturak* (%42,5) eta *ekipo-ondasunak* (%8,7) taldeetan oinarritzen dira.

Arabako esportazioei dagokionez, hirugarren hiruhilekoan %13,8 hazi dira, *ekipo-ondasunak* multzoaren urte arteko igoeraren eraginez (%20,3), eta, zehatzago, *garraio-materiala* multzoaren jokabide onaren eraginez (%32,4). Inportazioak pixka bat hazi dira, %1,6 hain zuzen ere, *garraio-materialaren* (%-28,8) jaitsiera handiaren eraginez, nahiz eta beste inportazio batzuk igo egin diren, hala nola *metalak eta manufakturak* (%45,9) eta *plastikoak eta kautxua* (%25,5).

Euskal AEko kanpo-merkataritzaren bilakaera. (Joera)

EUROAK milioikotan



Iturria: Eustat

Informazio gehiago nahi izanez gero:

Euskal Estatistika-Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastian kalea, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel.: +34-945-01 75 00 Faxe: +34-945-01 75 01 Posta elek.: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Patxi Garrido

Tel.: +34-945-01 75 13 Faxe: +34-945-01 75 01

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es

Datu-bankua: www.eustat.es/bancopx/euskara/indice.asp